

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

#### Gazteentzako berrikuntza-proiektuetarako diru-laguntzen deialdia 2023

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretuaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundearen diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu ziren, norgehiagoka eta lehia askearen araubidean.

Gazteentzako berrikuntza-proiektuetarako deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2022ko abenduaren 2ko bileran onartua, aipatutako oinarri orokorretara eta hurrengo ataletan ezarritakora egokituko da.

##### 1. Deialdiaren xedea

Deialdi irekia da, norgehiagoka-araubidekoa, eta haren helburua da laguntzak ematea gazteen berrikuntza- eta sustapen-proiektuak sustatzeko. Laguntza horiek 2023an garatuko dira, urriaren 30era arte, Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko enklabean.

Haren helburua da gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea eta gazteriaren arloan esku hartzeko proiektuak, ikerketa-proiektuak eta ikerkuntza-izaerako argitalpenak gauzatzea, Araban edo Trebiñuko enklabean.

Laguntza-poltsa horren helburua 18 eta 30 urte bitarteko gazteen ekimen kolektibo berritzaileak babestea izango da, garapen pertsonala eta komunitarioa bultzatzeko, gazteen ahalgintza bultzatzeko eta Arabako Lurralde Historikoko bizitza soziala, ekonomikoa eta kulturala aberasteko.

Gaztetasuna sustatzen duten proiektuak bultzatuko dira, gazteen sormenerako, berrikuntzarako eta gizarte eraldatzeko gaitasuna aitortuz, edo etorkizuneko gizarte-ekintzailetzako prozesuetarako ikaskuntza gisa balio dutenak.

##### 2. Honako baldintza hauek betetzen eta egiaztatzen dituzten talde sustatzaile onuradunak

a) Gutxienez 18 urte bete dituzten eta deialdi honetarako eskabidea egiteko unean 31 urte bete ez dituzten 3 pertsonen osatutako taldeak, elkarte edo enpresa gisa eratu ez badira eta, beraz, nortasun juridiko propioa ez badute, interes sozial publikoa duen eta deialdiaren xedearekin bat datorren proiektu edo ideia bat egitea proposatzen badute.

b) Exekuzio-konpromisoak eta dirulaguntzaren zenbatekoa kolektibo eskatzaileko kide bakoitzak hartuko ditu bere gain, modu solidarioan.

c) Talde sustatzaileko kideen bi heren, gutxienez, Araban edo Trebiñuko enklabean erroldatuta egongo dira.

##### 3. Diruz lagun daitezkeen proiektuak eta gastuak

###### 3.1. Diruz lagun daitezkeen proiektuak:

Deialdiaren bidez, batez ere Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko enklabea 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako proiektuak diruz lagundu daitezke 18 eta 30 urte bitarteko gazteek sustatuak.

Aurkeztutako ekimenak honako eremu hauetan izango dira: gazteen emantzipazioa, prestakuntza eta ahalgintza, gazteen arteko lankidetzaren eta truke-sare egonkorren sortzea, gazteentzako informazioa, artea eta kultura, ingurumenaren kontserbazioa eta jasangarritasuna, integrazioa eta genero-berdintasuna, gizarte-ekintzailetza edo kulturartekotasuna. Arlo horiez gain, gazteen intereseko beste eremu batzuetan oinarritutako beste proiektu batzuk ere baloratu ahal izango dira.

Proiektua batez ere Araban eta/edo Trebiñuko enklabeen garatu behar da. Nolanahi ere, askatasunez erreproduzitu ahal izango da beste lurralde-eremu batzuetan.

Ekimen berria izan behar da, lehendik ez dagoena.

Gazteriaren Foru Erakundeak, bere teknikarien bidez, proiektuaren jarraipena egingo du.

### 3.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak, proiektua gauzatzean egiten direnak eta, nolanahi ere, dirulaguntza justifikatzeko adierazitako data baino lehen benetan ordainduta daudenak. Proiektua garatzeko behar diren materialak, ekipamendua edo bestelako azpiegiturak erosteko edo alokatzeko gastuak (inbentariatu gabeko gastuak), proiektua garatzeko behar-beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak hirugarrenei ordaintzeko gastuak edo proposatutako jarduera egiteko sortutako gastuak.

b) Kontratututako langileen gastuak diruz lagundu ahal izango dira soilik proiektua garatzeko beharrezkoa den dedikazioa duten pertsonak direnean, eta ezingo dira erabili talde sustatzailea osatzen duten pertsonen ordainsarietarako.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ez da, inola ere, merkatuko balioa baino handiagoa izango.

### 4. Diruz lagundu ezin diren proiektuak

Oinarri arautzaileetan jasotakoez gain, honako hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Egiturazko proiektu edo ideia publiko edo pribatuak, aurretik existitzen direnak eta, beraz, berritzaileak ez direnak.

b) Aldizkako argitalpenak.

c) Zorroztasun zientifiko edo metodologikoko, interes sozialeko edo bideragarritasuneko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten ikerketa-proiektuak.

### 5. Eskabideak aurkeztea

5.1. Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2022ko irailaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://e-s.araba.eus> ; horretarako, aldeztu aurretik, talde sustatzaile eskatzaileko pertsona batek ziurtagiri elektronikoa (Bakq) eduki behar du. Egoitza elektronikora sartzeko moduei buruzko informazioa, bai eta erakunde ziurtatzaile batek emandako ziurtagiri elektronikoa eskatzeko nola jo ere, atal honetan dago: ezagutu egoitza — nola sartu.

- Gazteriaren Foru Erakundearen erregistroa: zuzenean edo behar bezala egiaztatutako ordezkari baten bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak Gasteizko Jesusen Zerbitzarien kaleko 5. zenbakian dituen bulegoetan, 12:00etatik 14:00etara.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetatik edozein.

5.2. Eskatzaileek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen formularioan bete beharko dute eskatutako informazioa, dokumentazio espezifiko honekin batera:

a) Administrazio-agiriak:

1. Eskabide-eredua (eskabidea egoitza aurkeztuz gero, ez da beharrezkoa horri erantzea).

## 2. Elkarreragingarritasunaren bidez egiaztatzeko baimena:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Zerga-betebeharrak egunean izatea. Betebehar horiek Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailarekin egiaztatuko dira.
- Araban edo Trebiñuko enklabeen erroldatuta egotea (talde sustatzailearen bi heren, gutxienez).
- Euskal Administrazioaren Ordainketa Pasabidearen bitartez egiaztatuko den banku-kontuaren titulartasuna, betiere dagokion banku-erakundea bertan integratu bada.

Elkarreragingarritasuna baimentzen ez bada, egoera hori egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira.

### b) Dokumentazio espezifikoa:

#### 1. Proiektuaren garapen-fitxa, honako egitura honekin:

- Izena.
- Helburuak eta adierazleak.
- Jardueraren edo jardueren garapena.
- Proiektuaren kronograma: hasiera-data, amaiera-data eta proposatutako jardueren ordutegiak.
- Proiektuaren garrantzia eta izaera berritzailea.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren tratamendua proiektuaren garapenean, neurriak adierazita eta deskribatuta.
- Proiektua hedatzeko moduak. Gizarte-eraginaren proiektzioa edo irismena.
- Proiektuaren aurrekontu zehatza: gastu eta diru-sarrerak kontzeptuak eta finantzaketa-iturriak.
- Proiektuaren ebaluazio-matrizea, helburuei eta adierazleei dagokienez.

Proiektu garatuagoa egoitzari erantsiko zaio, pdf fitxategi-formatuan, eta gutxienez 11 puntuko letra-tamainan egingo da, 20 orrialde gainditu gabe.

#### 2. Proiektua garatzeko edo gauzatzeko aurrekontua. Aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak.

Diru-laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen dela oinarri orokorretan eta deialdi honetan ezarritakoa.

Eskabidea elektronikoki erregistratu beharko du taldeko arduradun batek.

Nahi izanez gero, eskabidea eta proiektuaren garapena egoitzan aurkeztu ahal izango dira, gehienez 2 minutuko bideo eskematiko batekin, garatu nahi den proiektua azaltzeko. Bideo hori ez da 10 MB baino gehiagokoa izango eta 30 MBko transmisio osoa eragingo du.

### 6. Aurrekontu-erabilgarritasuna eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Helburu horretara bideratu den zuzkidura hogeita hamabost mila euro (35.000,00) dotazioa da, Gazteriaren Foru Erakundearen 2023ko gastu aurrekontuko 71100. G/232751/48000752 partidaren kontura. Deialdiaren ebazpena emateko, dirulaguntza emateko unean kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

Baliozkotutako proiektu bakoitzeko dirulaguntza 5.000,00 eurokoa izango da gehienez, eta 1.000,00 eurokoa gutxienez. Zenbateko gehigarria erantsi ahalko zaio dirulaguntza lerro bakoitzari, betiere hamar mila euro baino gutxiago, baldin eta aurrekontu kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da; hala ere, argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko ezta epe berri bat ere ebazpena emateko.

| AURKEZTUTAKO PROIEKTUETAN EBALUATU<br>BEHARREKO ALDERDIAK | PUNTUAZIOA<br>GUZTIRA 100 |
|-----------------------------------------------------------|---------------------------|
| Proiektuaren originaltasuna eta garrantzia                | 40                        |
| Proiektuaren diseinuaren eta garapenaren kalitatea        | 30                        |
| Gizarte-eraginaren azterlana eta proiektuaren hedapena    | 20                        |
| Ebaluazio-irizpideak                                      | 10                        |

Gutxienez 50 puntu lortu beharko dira proiektua diruz laguntzeko. Diruz lagundutako zenbatekoak baremo hauek izango ditu:

|                     |            |
|---------------------|------------|
| 50-60 puntu artean  | 1.000,00 € |
| 61-70 puntu artean  | 2.000,00 € |
| 71-80 puntu artean  | 3.000,00 € |
| 81-90 puntu artean  | 4.000,00 € |
| 91-100 puntu artean | 5.000,00 € |

## 7. Balorazio batzordea, batzorde teknikoa eta ebazpena

1) Proiektu bakoitza eskaera aurkeztu eta berehala aztertuko da, eta berariaz egiaztatuko da eskatutako gutxienerako puntuazioa lortzen duten. Horretarako, batzorde tekniko bat sortzen da, gutxienez Gazteriaren Foru Erakundeko gazteria-teknikariez eta dokumentu-kudeaketako teknikariez osatua, eta bertan parte hartu ahal izango dute Gazteriaren Foru Erakundeko Zuzendaritzak aditu gisa izendatutako beste pertsona batzuek. Batzorde tekniko horrek proiektu bakoitzaren bideragarritasuna aztertuko du 5.2 atalean aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eta azterketaren emaitzaren berri emango dio balorazio-batzordeari.

2) Oinarri arautzaileetan aurreikusitako balorazio-batzordeak, deialdian ezarritako irizpideen arabera eta batzorde teknikoak aldeztu aurretik egindako txostena ikusita, laguntzak emateko edo ukatzeko proposamenaren txostena igorriko dio, gehienez ere hamabost eguneko epean, Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendaritza gerentziari, hark ebazpena eman dezan.

## 8. Onuradunen betebeharrak

Hauek dira sariaren onuradunen betebeharrak:

a) Aurreikusitako proiektua edo programa egitetik erator daitezkeen erantzukizun guztiak bere gain hartzea.

b) Saritutako programa ez aldatzea, Arabako Gazteriaren Foru Erakundearen aldeztu aurreko baimenik gabe.

c) Emandako sariaren aplikazioari buruz Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak egokitzen dituen egiaztapen- eta jarraipen-jarduerak onartzea, baita Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak egokitzen dituen oharrak ere.

d) Proiektu, programa edo jarduera Arabako Gazteriaren Foru Erakundearen laguntzarekin egiten dela agerraraztea publizitatean, komunikazio-ekitaldietan eta jendaurrean egindako erakusketetan.

e) Sexuagatik, jatorriagatik, erlijioagatik eta abarregatik erabilera diskriminatzailezik ez egitea, ez hizkuntzan, ez proiektu, programa edo jarduerarekin lotutako publizitatearen eta komunikazioaren irudian.

f) Proiektu, programa edo jarduerarekin lotutako publizitatean eta komunikazioan euskara erabiltzeko hizkuntza-normalizazioko irizpideak betetzea.

### 9. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da. Ehuneko 70 diru-laguntza ematen den unean, eta gainerako ehuneko 30a, hurrengo puntuan zehazten den memoria aurkeztu ondoren. Justifikazio-memoria aurkezten ez bada, aurreratutako zenbatekoa itzuliko da, Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan zehazten diren baldintzetan.

Hauek izango dira diru-laguntza eta horren zenbatekoa zehazteko balorazio-irizpideak:

a) Diruz lagundutako ehuneko ez da proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 70etik gorakoa izango, eta, nolanahi ere, 5.000,00 euro emango dira gehienez.

b) Ez dira diruz lagunduko baloratu ondoren 1.000,00 eurora iristen ez diren eskaerak, 50 puntu baino gutxiago lortu dituztelako.

### 10. Diru-laguntzaren justifikazioa

2023ko azaroaren 15era arteko epean, hori barne, elkarte eta erakunde hartzaileek egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dute deialdi honen bidez diruz lagundutako jardueren azken memoria, Gazteriaren Foru Erakundeak emango duen ereduaren. Gutxieneko edukia honako hau izango da:

a) Egindako jardueraren memoria zehatza, data, parte-hartzaileak eta lekua zehaztuta, bai eta horien balorazio orokorra ere. Hala badagokio, proiektua garatzeko sortutako zabalkunde-materialak aurkeztuko dira.

b) Laburpen ekonomikoa:

— Jarduerak eragindako gastuen eta sarreraren balantzea (izandako gastuak eta sarrerak deskribatuta, baita jasotako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk ere).

— Gastuen fakturak edo egiaztagiria, jarduerak egiteari dagozkion gastuen zenbateko osoa adierazten dutenak.

• 400,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatuta beharko da.

• Aitzitik, 400,00 euro baino gutxiagoko fakturretan, datu hauek jasoko dituen gastuen justifikazio erraztu bat egin behar izango da: data, hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta ordainketa data.

c) Langileen gastuen justifikazioa:

Soldatapeko langileak edota profesionalak kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa eta ordainagiria nahitaez aurkeztu behar dira.

Soldatapeko langileen lan egoera zehaztu beharko da, honako hau jasotzen duen taula batean: langileak, arduraldia, hilabetea, soldata likidua, PFEZaren atxikipena, langileek Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoa, enpresak Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoa, eta gutzirakoa.

Halaber, beti ere erakundeak kontratatutako jatorrizko nominak –edo fotokopia konpultsatuak– aurkeztu beharko dira, haiek proiektuari eratzikita dauden aldikoak. Soldatak ordaindu izanaren frogagiri bezala, ondoko hauetako edozein onartuko da:

— Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.

— Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, adierazten duena langileak zenbatekoa kobratu duela, dagozkion hilabeteagatik.

— Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta horrekin batera, enpresa/entitate onuradunaren ziurtagiria, langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla zehazten duena eta langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagozkion adierazten duena.

Aurretik esandakoaz gainera, nahitaez aurkeztu beharko dira Kotizazioen likidazioaren zerrenda (RLC) eta Langileen izenen zerrenda (RNT), eta dagozkien kotizazioak ordaindu izana frogatzen duten agiriak.

**11. Diru-laguntzen bateraezintasuna**

Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarka ez beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, nolanahi ere, beste ekarpen batzuk ere lortzen badira diruz lagundutako jardueraren kostua baino gehiago, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

**12. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak beretzat gordetzen du diruz lagundutako proiektuak bere web orrian eta sare sozialetan argitaratzeko eskubidea. Egileek beren kabuz argitaratu nahi badute edo beste deialdi, lehiaketa edo erakunde batzuetara aurkeztu nahi badute, esanbidezko baimena eskatu beharko diote Arabako Gazteriaren Foru Erakundeari, eta, nolanahi ere, Gazteriaren Foru Erakundeak aldeztu aurretik diruz lagundu duela adierazi beharko da.

Gazteriaren Foru Erakundearen webgunea eta Infogaztearen sare sozialak gazteen ideia eta proiektu horiek zabaltzeko bide gisa erabili ahal izango dira, eta, batzuetan, hasierako proiektuaz gain ikus-entzunezko material osagarriak sortu ahal izango dira, jarraipena egiteko, proiektuen inpaktu soziala handitzeko eta haien ebaluazioa egin ahal izateko.

Deialdi honetan parte hartzen dutenek deialdian zehazten diren baldintza guztiak onartzen dituzte eta berariaz haien mende jartzen dira. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduak aitortzen dituen eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro bulegora joz (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Araba).

Vitoria-Gasteiz 2022ko abenduaren 27a

*Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea*  
**ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ**